HERNANIKO PLAZA BERRIN (1 LOTEA) ETA URBIETA KALEAN (2 LOTEA) DAUDEN BI KIOSKOEN EMAKIDA ADMINISTRATIBOA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZEN PLEGUA.

1.- EMAKIDAREN EDUKIA

1.- HELBURUA

Plegu honen arabera egingo den kontzesioaren helburua Hernaniko Plaza Berrin (LOTE 1) eta Urbieta kalean (LOTE 2) kokatuta dauden aldizkarien eta egunkarien salmentarako bi kioskoen erabilera pribatua egitea da, baldintza plegu honek zehaztutako baldintzetan eta esleipendun suertatzen diren eskaintzen arabera.

Bertan mota guztietako legezko jarduerak burutu ahal izango dira, beti ere lokalarentzat eta kokapenarentzat egokiak badira, jarraian aipatzen diren hauek izan ezik: Tabako salmenta, edari alkoholdunen salmenta, herritarren sentsibilitate erlijioso, politiko edo moralari eraso egiten dioten jarduerak, edo antzekoak.

Kioskoen irekiera ordutegia honakoa izango da gutxienez: 07:00etatik 13:30etara asteko egun guztietan. Kontzesiodunak ordutegi hori zabaldu ahal izango du.

- **Lote 1** Plaza Berrin kokatua dagoen kioskoaren emakida
- **Lote 2** Urbieta kalean kokatua dagoen kioskoaren emakida

2.- EMAKIDAREN EPEA

Bi Emakidak 10 urterako ematen dira, kontratua sinatzen denetik, eta bost urteko prorrogak egin ahal izango dira, gehienez ere 25 urte arte.

Luzapena espresuki adostu beharko da eta bi aldeek ados egon beharko dute.

3.- EMAKIDAREN KANONA

Ez da kanonik ezartzen, interes sozialeko arrazoiengatik.

4.- BEHIN BETIKO BERMEA.

Esleipena egiten denean kontratistari jakinaraziko zaio eta eskatuko zaio jakinarazpenaren ondorengo 10 eguneko epean behin betiko bermea osatu izana egiaztatzen duen dokumentua aurkez dezala, SPKLren 108. artikuluan aurreikusten den edozein modutan, 1.000 euroko bermea, Tokiko Erakundeen Ondasunen Araudiaren 90.1 artikuluan jasotzen duenaren arabera.

Bermearen itzulketa SPKLren 111 artikuluan jasotzen denaren arabera egingo da, kontratua amaitu eta esleipendunak kontratuak ezartzen dizkion betebehar guztiak bete ondoren.

Esleipendunari lepora dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua ezarritako epean gauzatzerik ez badago, horrek fidantza galtzea eta sorturiko kalte-galerak ordaintzea ekarriko du. Ondoren, haren ondoko lizitatzaileari edo lizitatzaileei esleitu ahal izango zaie kontratua, haien eskaintzen ordenan, betiere esleipendun berriarekin adostuta.

Kontratua esleipendunaren erruz baliogabetzen bada behin betiko bermea hartu egingo zaio eta, behar izanez gero, kalte-ordaina ordaindu beharko du eragindako kalte-galerengatik, horien zenbatekoa hartutako bermearen kopurutik gorakoak baldin badira.

II. EMAKIDA ESLEITZEKO PROZEDURA

5.- ESLEITZEKO PROZEDURA ETA MODUA

Emakidak esleitzeko modua prozedura irekia izango da, SPKLren 156 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz.

Bi loteen emakidaren esleipenerako oinarri izango diren irizpideak hauek izango dira:

1.- Kioskoen ordutegia zabaltzea 30 puntu arte.

- Astean bi arratsaldez irekitzea .....15 puntu.
- Astelehenetik ostiralera arratsaldez irekitzea..... 15 puntu.

2.- MUGI kargatzeko zerbitzua eskaintzea: 10 puntu arte

3.- Izaera sozialeko egoerak: 20 puntu arte.

- Langabezia egoeran egotea bi urte baina gehiago:.....10 puntu.
- 50 urte baino gehiago izatea: .....10 puntu.

4.- Aldizkari eta egunkarien salmentan esperientzia izatea : 40 puntu arte

- 2 urteko esperientzia izatea..... 10 puntu
- 2 eta 5 urte arteko esperientzia izatea.....20 puntu.
- 5 eta 8 urte arteko esperientzia izatea.....30 puntu
- 8 urtetik gorako esperientzia izatea.....40 puntu.

6.- KONTRATATZEKO AHALMENA

Gaitasun juridikoa eta jardutekoa duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide honetan, kontratatzeko debekuren bat ez badute, SPKLren 71. artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta.

Halaber, beren kabuz nahiz baimendutako pertsona batek ordezkaturik egin ahal izango dute hori, horretarako berariaz emandako ahalorde askietsia erabiliz. Pertsona juridikoa bertako kideren batek ordezkatzen duenean, ordezkari izateko ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Kasu batean nahiz bestean, arestian aipatutako kontratatzeko debekuek ordezkariari ere eragingo diote.

7.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA.

Kontratazio honen espedientea, baita horrekin batera doan dokumentazio teknikoa ere, Udal honetako Kontratazio Sailean aztertu ahal izango da bulegoak jendearentzat irekita egoten diren ordutegian, egun baliagarri guztietan, lizitazio honen iragarkia **Kontratatzailearen profilean** argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, proposamenak aurkezteko epea bukatzen den arte.

Kontratazio Sailarekin harremanetan jartzeko:

Kontratazio Saila - Gudarien plaza, 1. 20120 Hernani
Tel. 943 337024 / Faxa 943 551141 / e-posta: kontratazioa@hernani.eus
Kontratatzailearen profila: www.hernani.eus

Proposamenak www.contratacion.euskadi.eus lizitazio elektronikorako plataformaren bitartez edo Udaletxean aurkeztuko dira HHZko (Herritarren Harrera Zerbitzua) bulegoetan, kontratatzailearen profilean argitaratzen den iragarkiak emandako epearen barnean.

Eskaintzak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako batean idatzita aurkeztuko dira.

Proposamenak aurkeztu izateak lizitatzaileak Administrazio Klausula Partikularren Pleguetan eta Xedapen Teknikoen Pleguan adierazitako guztia inolako baldintzarik gabe onartu beharko duela suposatuko du.

Lizitatzaileek **ARTXIBO ELEKTRONIKO BAT edo GUTUN AZAL BAT** aurkeztu beharko dute **LOTE BAKOITZEKO**:

Lizitatzaile bakoitzak nahi duen loteetara aurkezteko mugarik ez dago, ezta ere esleipendun izateko lote kopuru mugarik ere.

Bi loteetara aurkeztuz gero, lote bakoitzeko artxibo elektroniko edo gutun azal bat aurkeztu beharko ditu.

Lizitatzaile bakoitzak ezingo du lote bakoitzeko eskaintza bat baino gehiago aurkeztu. Ezingo da beste batzuekin aldi baterako batasun batean parte hartzeko eskabiderik aurkeztu, baldin eta banaka ere aurkeztu bada, eta ezingo da aldi berean batasun batean baino gehiagotan parte hartu, lote bakoitzeko

LOTE 1: Izenburua: "PLAZA BERRIKO KIOSKOAREN EMAKIDA"

Honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- I ERANSKINA, eredua jarraituz, behar bezala beteta.
- II ERANSKINA , eredua jarraituz, behar bezala beteta

LOTE 2: Izenburua: "HERNANIKO URBIETA KALEKO KIOSKOAREN ERABILERA PRIBATIBORAKO EMAKIDA"

Honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- I ERANSKINA, eredua jarraituz, behar bezala beteta.
- II ERANSKINA, eredua jarraituz, behar bezala beteta.

8.- KONTRATAZIO MAHAIA

Hernaniko Udaleko kontratazio mahai iraunkorra izango da.

Bertan egon ahal izango dute Mahaiak egoteko eskatzen dien udal teknikari guztiak, aholkularitza lanak egiteko.

9.- PROPOSAMENEN KALIFIKAZIOA ETA BALORAZIOA

Proposamenak aurkezteko epea amaituta, Kontratazio Mahaiak jasotako dokumentazio administratiboa kalifikatuko du, eta eskumena duen organoak aurkeztutako dokumentazioan akats materialak aurkituko balitu, gehienez ere 3 eguneko epea eman diezaioke, egoki ikusten badu, lizitatzaileak akatsa konpon dezan.

Komunikazio hori posta elektroniko bidez egingo da, aipatutako egoera kontratatzailearen profilean publiko egiteari kalterik eragin gabe.

Dokumentazioak oinarrizko akatsak edo konpon ezin daitezkeen akats materialak izango balitu, proposamena baztertu egingo da.

Ondoren, Kontratazio mahaiak II eranskinak aztertu eta eskaintzak ebaluatuko eta sailkatuko ditu. Aurrez, honelakorik bada, pleguak finkatzen dituen eskakizunak betetzen ez dituzten eskaintzak baztertuko ditu.

Proposamenen arteko puntuazio berdinketa egongo balitz SPKLren 147.2 atalean jasotako irizpide sozialak hurrenez hurren aplikatuz erabakiko da, proposamenak aurkezteko epea bukatzen den unea kontuan hartuz.

Horren ondoren, Kontratazio Mahaiak esleipen-proposamena aurkeztuko dio esleipena egin behar duen kontratazio-organoari.

Kontratazio mahaiak egindako esleipen-proposamenak ez dio lizitatzaileari inolako eskubiderik emango Adminsitrazioaren aurrean.

10.- ESLEIPENA ETA FORMALIZAZIOA

Kontratazio Mahaiak aurkeztutako proposamenak aurkeztuko dizkio eskumena duen organoari, aktarekin eta esleipen proposamenarekin batera.

Kontratazio organoak esleipendunari eskatuko dio **hamar egun balioduneko** epean, eskaera jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, dokumentazio hau aurkez dezala:

- Lizitatzailearen nortasuna egiaztatzeko dokumentuak:
    - Lizitatzailea pertsona juridikoa bada, nortasuna, osaera, edo hala badagokio, aldaketa eskritura bidez egiaztatuko da, baldintza hori eskatzen den kasuetan. Bestela, osaera dokumentua, estatutuak edo sortze ekintza aurkeztu beharko du jarduera arautzen duten arauak jasota, dagokion Erregistro Ofizialean inskribatua, hala behar izanez gero.
    - Lizitatzailea pertsona fisikoa bada, Nortasun Agiri Nazionala edo baliokide den dokumentuaren bitartez.
- Zerga betebeharrak eta gizarte segurantzakoak eguneratuta daudela ziurtatzen duen dokumentazioa.
- Ekonomi Jardueren gaineko Zergan, kontratuaren gaiari dagokion epigrafean hain zuzen ere, alta eman diotela frogatzeko, lehiatzaileak alta-agiria aurkeztuko du, uneko ekitaldian

bertan hartua badu, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Beti ere, zerga horren matrikulan bajarik hartu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena erantsiko du.

- Behin betiko bermea eratu izana.

- 20. Klausulan ezarritako hizkuntza baldintzak betetzen direla egiatatzen duen ziurtagiria

Esleipena aurreko 10 eguneko epea amaitu eta hurrengo bost egunen barruan egingo da, beti ere enpresa lizitatzaileak aipatutako dokumentazio aurkeztu badu eta behin betiko bermea jarri badu.

Esleipena 2 hilabeteko epean egingo da, proposamenak ireki eta biharamunetik kontatzen hasita.

Emakida dokumentu administratiboan gauzatuko da, kontratuaren formalizazioa esleipen jakinarazpena jaso eta hurrengo hamabost laneguneko epean egin beharko da.

III.- KIOSKOAREN USTIAPENA.

11.- ARRISKUA ETA ZORTEA

Esleipendunak bere gain hartuko ditu saltokiaren ustiapenaren eta kontserbazioaren ondorio diren arrisku eta zortea. Administrazioak ez du inolako erantzukizunik hirugarrenen aurrean egindako kontzesioak ez betetzeagatik.

Esleipendunari edo haren agindupekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badu kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.

12.- ESLEIPENDUNAREN ARDURA HIRUGARRENEI ERAGINDAKO KALTEEN AURREAN.

Enpresa esleipendunaren ardura da kontratuko lanen ondorioz sor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea, SPKLren 196.artikuluan xedatutakoaren arabera.

13.- KONTZESIODUNAREN LAN BETEBEHARRAK

Kontratu honen xede diren obretan kontratatutako langileei dagokienez, esleipendunak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienearen arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu. Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira. Ez da inolako lan harremanik egongo kontzesioaren exekuzioan ariko diren langileen eta Udalaren artean.

14.- KONTZESIODUNAREN BETEBEHARRAK.

- Kontzesioduna behartuta dago zerbitzua antolatu eta ematera, kontratuan ezarritako ezaugarrien arabera eta bertan ezarritako epeen barruan. Kontzesioa kontratuko baldintzen arabera eta udalak dituen eskumenen arabera ematen dituen jarraibideen arabera exekutatuko da.
- Paisaia eta hizkuntzan udalaren genero irizpideak bete beharko ditu.
- Kioskoaren jarduera modu pertsonalean ustiatu beharko du, opor garaia eta titularraren asteko atsedena izan ezik.

- Kontzesiodunak zerbitzuaren ordena egokia zaindu beharko du eta erabilera arauak zuzen aplikatzen direla eta obraren eta instalazioen kontserbazioa.
- Kontzesiodunaren kontura izango dira ustiapenaren funtzionamenduaren eta mantenuaren ondorio diren gastu guztiak (argia, eta abar).
- Gaur egun dauden elementu edo instalazioetan hobekuntzak edo obrak egin nahi badira, Udalaren baimen idatzia beharko da, hau ez betetzeak kontratua etetea ekar dezakeelarik.
- Ezin da bide publikoa erabili iragarkiak jartzeko, ezta kioskoaren inguruan euskarri, apal, haize-babesle, plastiko edo beste edozein elementu jarri ere, pertsonen joan-etorria oztopatu edo ingurune urbanistikoa kaltetu baitezakete, udalaren baimena dagoen kasuetan izan ezik.
- Postuan ezin da publizitaterik egin, egunkari, aldizkari eta bertan saltzen diren argitalpenena izan ezik. Publizitate errotuluak ezingo dira ezarritako lekua baino handiagoak izan, udalaren baimena ez badute.
- Ondasunei eragindako kalteen zenbatekoa ordaintzeko betebeharra izango du.
- Kontzesiodunak ezingo du kontratuaren helburu ez den jarduerarik garatu, hain zuzen ere kontratua prentsa kioskoaren ustiapenerako jabari publikoaren erabileraren ingurukoa.
- Kontratua amaitzean, kontratistak Udalaren eskura utzi beharko ditu instalazioak, kontserbazio eta mantenu egoera bikainean.

15.- KONTZESIODUNAREN ESKUBIDEAK.

Kontzesiodunaren eskubideak hauek dira:

α) Zerbitzurako beharrezkoak diren udalaren ondasunak erabiltzea.
β) Zerbitzua emateari dagozkion diru sarrerak jasotzea.

16.- ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK.

Esleipendunak zigorra jasoko du Baldintza Administratiboen Pleguan aurreikusitako betebeharrak ez betetzeagatik.

Arau-hausteak, arin, larri eta oso larritan sailkatuko dira.

a) Arau-hauste oso larritzat hartuko dira:
1.- Lanen prestaketa-hasiera, ezinbesteko arrazoirik ez dagoelarik, atzeratzea.

2- Zigor larriak behin eta berriz egitea.

3.- Zerbitzu desegokia edota kaskarra ematea.

b) Arau-hauste larritzat honako hauek hartuko dira:
1.- Kontratugilearekin loturiko pertsonalak herritarrarekin izan ditzakeen tirabirak, tratu desegokiagatik edota zerbitzu kaskarrarengatik.

2.- Hutsegite arinak behin eta berriz egitea (bi hutsegite urte beteko epean).

3.- Ezarritako ordutegia ez betetzea.

c) Arinak
Aurreikusi ez diren gainerako arau-hausteak eta, nolabait ere Plegu honetan eta Plegu Teknikoan ezarritako baldintzak betetzen ez direlarik, zerbitzuan ondorio ez-larriak eragiten dituztenak joko dira arau-hauste arintzat.

17.- ZIGORRAK

Hernaniko Udalak honako zigor hauek jarri ahal izango dizkio esleipendunari:

- 301-500 euro arteko isuna arau hauste oso larriak egiteagatik.

Arau-hauste larriengatik kontratua bertan behera utzi ahal izango da, fidantza galdu eta kalte-galerak ordainarazi.

- 151-300 euro arteko isuna arau hauste larriak egiteagatik.

Hiru arau-hauste larrirengatik kontratua bertan behera utzi ahal izango da, fidantza galdu eta kalte-galerak ordainarazi.

- 150 euro arteko isuna arau hauste arinak egiteagatik.
- Zerbitzua osorik ez emateagatik honako isunak jarri ahal izango dira:
  - 50 euro eguneko lehenengo hamar egun naturalengatik.
  - 30 euro eguneko hamaikagarren egunetik aurrera.
  -

Zigorra gora behera, jabariari edo instalazioei kalterik eragiten bazaizkio, eta ustekabeko edo ezinbestekoen ondorio ez denean, Administrazioak kaltetutako elementuak aldatzea eskatuko du, baita horien kalte ordaina ere.

18.- LAGAPEN TRANSFERENTZIA ETA AZPIKONTRATAZIOA.

Esleipenduna kontzesioaren titularra izango da eta jardueraren edo ustiaketaren zuzeneko kudeatzailea.

Udalak berariaz baimendu ezean, esleipendunak ezingo dizkio kontratuaren eskubideak eta betebeharrak beste pertsona edo erakunderen bati laga edo eskualdatu.

Halaber, aurretik Udalak espresuki baimendu ezean, esleipendunak ezingo dio lanen zati bat hirugarren bati azpikontratatu.

19.- KONTZESIOA BUKATZEA ETA LEHENERATZEA

Emandako kontzesioa arrazoi hauengatik bukatuko da:

- Kontzesio epea amaitu delako.
- Heriotzagatik, jubilazioagatik edo kontzesiodunaren ezintasunagatik edo izaera juridikoa iraungitzeagatik.
- Kontzesioa eman den ondasuna desagertu edo kaltetu delako.
- Kontzesiodunak uko egin diolako, Udalari jakinarazi beharko zaio 3 hilabeteko aurrerapenarekin.
- Berreskurapenagatik. Udalak eskubidea dauka epemuga iritsi baino lehen kontzesioa bertan behera uzteko, interes publiko egoerak hala justifikatzen badute.
- Udala eta kontzesioduna akordio batera iritsi direlako.
- kontzesiodunaren titular gisa dituen betebeharren arau hauste larriengatik, kontzesioa eman zion kontratazio organoak adierazitakoak.

LEHENERATZEA

Kontzesio epea amaitzen denean, edo baliogabetzen denean, korporaziora itzuliko da kontzesioaren helburu den ondasuna, kontratista kontratuaren arabera entregatu beharko du eta kontserbazio egoera onean, hori guztia, kontzesio bukatu eta 30 eguneko epean.

20.- HIZKUNTZA BETEBEHARRAK

Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan erregulatua, besteak beste, Hernaniko Udalak onartuta dituen hizkuntza irizpideak Udal barruan eta Udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko.

Azaroaren 19ko 179/2019 dekretuak, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoak, 4. ataleko 36. artikuluan jasotzen du Euskadiko toki-entitateek egiten dituzten kontratuetan kasu bakoitzean beharrezkoak diren klausulak sartuko dituztela, batetik herritarrei bermatzeko toki-erakundeei exijitzen zaizkien hizkuntza baldintza berberetan jaso ahal izatea kontratu bidezko jarduerak eta zerbitzuak eta bestetik, euskararen eta gaztelaniaren hizkuntza ofizialtasunaren erregularizazioa betetzeko.

Kontratuaren xede den prestazioaren berezko ezaugarriak kontratua euskaraz gauzatzea eskatzen du, enpresa esleipendunaren langileek zuzeneko harremana izango dutelako zerbitzu jasole euskaldunekin.

Hizkuntza baldintza hauek kontratuaren betebehar izaera dute, eta horiek urratzeak zigor sistema aplikatzea ekar lezake edo kontratua bertan behera uztea Sektore Publikoko Kontratuaren Legeari jarraiki.

a) Hizkuntza gaitasunari buruz

Enpresa esleipendunak herritarrekin zuzeneko harremanean lan egiteko izendatutako langileek bi hizkuntza ofizialetan lan egiteko gaitasuna izan beharko dute, eta esleipena aurrera eramateko Europako Erreferentzia Markoaren **B-2 maila edo honen baliokidea ahozkoan egiaztatu beharko du.**

Kontratua esleitu aurretik, esleipendun izateko proposatzen den enpresak horretarako ezarritako epean egiaztatu beharko du zerbitzua emateaz arduratuko diren pertsonek eskatutako hizkuntza gaitasuna dutela.

Egiaztapena nola:

-Euskara gaitasunaren titulu bitartez

-Euskaltegiratuta dauden pertsonen kasuan, euskaltegiak egindako agiri bitartez.

-Euskal Autonomia Erkidegoko beste erakunde publiko batek egindako mailaketa proban ateratako emaitza egiaztatzen duen agiri bitartez

-Euskara maila egiaztatzetik salbuetsita dagoela jasotzen duen agiriaren bitartez: Apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren 2., 3. eta 4. artikuluetan eta otsailaren 26ko 28/2019 Dekretuaren eranskinean jasota dagoenaren baitan.

-Hernaniko Udalean 2006az geroztik egindako mailaketa probaren batean ateratako emaitza hartuko da kontuan.

Kontratuaren esleipendun izateko proposatzen den enpresako langileek kontratazio honetarako eskatutako euskara gaitasuna egiaztatua ez badute, mailaketa-probak egingo dizkie Udalak. Azterketak Udalak zehaztutako egunean, orduan eta lekuan egingo dira. Udaleko Euskara Zerbitzuak antolatuko ditu dagozkion azterketak langile horien euskara maila neurtzeko. Horretarako Euskara Zerbitzua harremanetan jarriko da enpresarekin. Enpresak bere gain hartuko du mailaketa proba horiek egiteak sor dezakeen kostua.

Euskara Zerbitzuak aldeko txostena egin arte ezingo du Kontratazio Mahaiak kontratazioan aurrera egin.

Kontratuaren esleipendun izateko proposatzen den enpresak zerbitzu honetarako eskatutako euskara gaitasuna egiaztatzen ez badu, ezin izango da esleipenduna izan. Horrelakorik gertatuz gero, Udalak lehiaketaren zerrendan 2. geratu den lizitatzailearen euskara gaitasuna baloratuko du. Eta horrela hurrenez hurren.

Zerbitzua emateko izendatutako langileek ez badute B2 gaitasun maila ahozkoan, enpresa esleipendunak Udalarekin adostuko du nola hobetu euskara maila.

Era berean, enpresa kontratatu eta geroago enpresa esleipendunak langileren bat aldatuz gero edo zerbitzua emateko pertsona berririk kontratatzeko asmorik izanez gero, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute. Langile aldaketa egiten den guztietan enpresak Udalari jakinaraziko dizkio langile berriaren izen-abizenak eta horrek egiaztatutako euskara maila. Enpresak Udalaren aldeko txostena beharko du langile berria lanean hasi aurretik.

b) Zerbitzuan erabiliko den hizkuntzari buruz

Enpresa esleipendunak, zerbitzua materakoan, Udalak bere hizkuntzazko jarduera arautzeko dituen planen arabera jokatuko du.

1) Hizkuntza paisaia

Zerbitzua ematean enpresa esleipendunak kioskoan jartzen dituen errotulu, seinale, ohar, kartel eta gainerako komunikazio orokorrak euskaraz idatziko dira ondorengo kasu hauetan:

- Hitzek euskaraz eta gaztelaniaz antzeko grafia dutenean
- Mezuak piktograma bidez lagundurik direnean eta haren bitartez ulergarriak direnean.
- Oso zabalduak dauden hitzetan (musika eskola, kultur etxea ...).

Aurreko hiru kasuak ezinezkoak direnean, ele bitan egingo dira euskarari lehentasuna emanez, betiere Udalarekin aldez aurretik adostuta.

2) Zerbitzu jasoleekin erabiliko den hizkuntza

Hernaniko Udalak onartutako irizpideei jarraituz, herritar euskaldunekiko ahozko harremana (lehen hitza, telefonoz, erantzungailuan, aurrez aurrekoan...) eta idatzizkoa (oharrak, abisuak, ordutegiak...) euskaraz izango da.
Herritarrak, norbanako gisa, edozein unetan erabil dezake hizkuntza aukeratzeko eskubidea.
Herritar erdaldunekiko idatzizko harremanean, euskarari emango zaio lehentasuna.

3) Udalaren eta enpresaren arteko harremanetan erabili beharreko hizkuntza

Enpresa esleipendunaren eta Udalaren arteko ahozko —bilerak, kontsultak...— nahiz idatzizko harremanak —fakturak, txostenak...— Udalaren lan hizkuntzaren araberakoak izango dira, hau da, euskaraz.

c) Hizkuntza baldintzen jarraipenari eta ez betetzeari buruz

Kontratazioa sustatu duen udal lansailaren arduradunak jarraipena egingo du zerbitzu hau emateko eskatu diren hizkuntza baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

Hizkuntza baldintza horiek urratzeak zigor sistema aplikatzea ekar lezake, Sektore Publikoko legearen 192. artikuluari jarraituz. Behin eta berriz urratzeak, berriz, kontratua bertan behera uztea ekar lezake, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 211. artikuluari jarraituz

IV. IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

21.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK

Hernaniko Udalari dagokio kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginean eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

Kontratazio organoak ebazten dituen akordioak bide administratiboari amaiera emango diote eta berehala bete beharrekoak izango dira.

22. IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

Kontzesioaren helburua prentsa kioskoak okupatutako jabari publikoaren erabilera pribatiboa da, ekainaren 13ko 1372/1986 Tokiko Erakundeen Ondasunen araudiaren arabera. Plegu hau oinarri hartuta egiten den kontratuak izaera administratiboa izango dute eta plegu honetan ezarritakoaren arabera arautuko da, eta plegu honetan aurreikusten ez den guztirako, hauek hartuko dira kontuan: azaroaren 3ko 33/2003 Legea, Administrazio Publikoei buruzkoa eta Azaroaren 8ko, 9/2017 Legea Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa.

Administrazio-baldintza zehatzen agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanak izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.

Kontraesanik baldin badago Baldintza Administratibo partikularren plegu honetan jasotako testuaren gaztelaniazko eta euskarazko bertsioen artean, euskarazko bertsioan jasotakoak izango du lehentasuna.

23. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratutik sortzen diren auziak Administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren menpe egongo dira. Nolanahi ere, bi alderdiek nahi izanez gero, auziak arbitrajearen bidez konpondu daitezke, indarrean dagoen legerian zehaztutakoarekin bat etorriz.

24. IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESA.

Kontratazio honek berarekin izaera pertsonaleko datuetan sartzea dakarrenean, enpresa kontratistak SPKLaren Hogeita Bosgarren Xedapen Gehigarrian finkatutako betebeharrak bete beharko ditu, abenduaren 5eko 3/2018,Datu Pertsonalen Babesteko eta eskubide digitalak bermatzekoa Lege Organikoari eta hori garatzen duen araudiari dagokienez.

Gudarien plaza 1 – Tel. 943 337 000 – Fax 943 55 26 96 – e-mail: hhz@hernani.eus